

**Ondarearen  
gaineko Zerga  
2012**



## Ondarearen gaineko Zerga

1. Sarrera
  - 1.1 Zein dago ondarea aitortzera behartuta?
  - 1.2 Zeri deritzogu ohiko egoitza?
  - 1.3 Zer ondare aitortu behar da?
  - 1.4 Zer ondare ez da aitortu behar?
  - 1.5 Zein da ondarearen titularra?
  - 1.6 Nola aurkezten da ondarearen aitortpena?
  - 1.7 Noiz eta non aurkezten da aitortpena, eta nola ordaintzen da?
2. Nola kalkulatzen da oinarri ezargarria?
3. Nola baloratzen dira ondare ondasunak, eskubideak eta zorrak?
  - 3.1 Ondasun higiezinak
  - 3.2 Jarduera enpresarialak eta profesionalak
  - 3.3 Kontu korrante edo aurrezki kontuen gordailuak, agerian edo epeka
  - 3.4 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak
  - 3.5 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak
  - 3.6 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak
  - 3.7 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten gainerako baloreak
  - 3.8 Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak
  - 3.9 Bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak eta aireontziak
  - 3.10 Arte-gaiak eta zaharkinak
  - 3.11 Eskubide errealak
  - 3.12 Administrazio emakidak
  - 3.13 Jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubideak
  - 3.14 Kontratuzko aukerak
  - 3.15 Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun eta eskubideak
  - 3.16 Zorrak
4. Nola kalkulatzen da oinarri likidagarria
5. Nola kalkulatzen da kuota osoa?
  - 5.1 Kuota osoaren muga
6. Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria
7. Kuotaren hobaria Ceuta eta Melillan



## 1. Sarrera

### 1.1 Zein dago ondarea aitortzera behartuta?

Ondoko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoek aurkeztu behar dute, obligazio pertsonalagatik, Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena:

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadun izatea Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean.
- Oinarri ezargarrria 700.000,00 eurotik gorakoa izatea, Zergari buruzko arauari jarraiki kalkulatu, edo, hori gertatzen ez denean, haien ondasun edo eskubideen balioa, Zergaren arauen arabera kalkulatu hau ere, 2.000.000,00 eurokoa baino handiagoa izatea. Kontuan eduki behar da ondare garbi osoagatik ordaindu behar dela zerga, ondasunak non dauden kokatuta edo eskubideak non erabili daitezkeen kontuan hartu gabe.

Ez-egoiliar batek Gipuzkoan izan badu bere azken egoitza, Gipuzkoan aitortzea aukeratu ahal izango du obligazio pertsonalagatik. Aukera hori obligazio pertsonalari dagokion aitortpena Gipuzkoako egoiliar izateari utzi dion lehen ekitaldian aurkeztuz egin beharko da.

Lurralde espainiarrean egoitzarik ez duten pertsona fisikoek ere Ondarearen gaineko Zerga aitortu behar dute, obligazio erreala-gatik, lurralde espainiarrean ondasun eta eskubideak dituztenean, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

- Ondasun eta eskubide horien baliorik handiena euskal lurraldean egotea.
- Ondasun eta eskubideak Gipuzkoan eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde historiko batean edo batzuetan kokatuta badaude, Gipuzkoan kokatutako balioa beste lurralde historikoetan kokatuta daudena baino handiagoa izatea.

Zentzu horretan, lurralde jakin batean kokatuta dauden, gauzatu daitezkeen edo bete behar diren ondasun eta eskubideak hartuko dira lurralde horretan kokatutzat.

**OHARRA:** 700.000,00 euroko minimo salbuetsia zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboari aplikatuko zaie, betiere frogatzen badute beren ondare osoa 700.000 eurotik beherakoa dela, eta haien egoitza ez badago paradisu fiskaltzat hartutako herrialdeetan edo informazio trukerako akordioarik sinatu ez dutenetan.

### 1.2 Zeri deritzogu ohiko egoitza?

Irizpide hauek aplikatuz ulertuko da lurralde espainiarrean bizi den pertsona fisiko batek ohiko egoitza Gipuzkoan duela:

- **Egonaldia:** Euskal Autonomia Erkidegoan urtebetetik gora egonik, Gipuzkoan ematen duen egun kopurua handiagoa denean Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetan baino.

Ondoko kasuan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2012. urtean, denbora tarte desberdinetan:

| Herria   | Hilak | Egunak |
|----------|-------|--------|
| Madril   | 5     | 152    |
| Donostia | 4     | 122    |
| Bilbo    | 3     | 92     |

Nahiz eta Madril egun gehiagotan bizi izan (152), Euskal Autonomia Erkidegoan egondakoak (214) batuz gero, ikus daiteke zergadun horri Euskal Autonomia Erkidegoko araudia aplikatu behar zaiola. Ondoren, ikus dezakegunez, Gipuzkoan eman du denbora gehiena (122 egun, Bizkaiko 92 egunen aldean). Beraz, zergadun horrek Donostian izango du egoitza, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari ordainduko dio zerga.

- **Interes gune nagusiaren irizpidea:** interesgune nagusia Gipuzkoan duenean, hau da, etekinen zatirik handiena Gipuzkoan lortu dituztenean (lana, kapital higiezia, jarduera enpresarialak...).

Ondoko kausan, adibidez, pertsona fisiko bat herri hauetan bizi izan da 2012. urtean, denbora tarte desberdinetan:

| Lurraldea | Egunak |
|-----------|--------|
| Madril    | 152    |
| Gipuzkoa  | 107    |
| Bizkaia   | 107    |

Oraingoan, lehen irizpidea (egonaldia) ez da nahikoa ohiko egoitza zehazteko, nahiz eta jakin badakigu egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela. Aztertu behar dugu non duen interesgune nagusia (Bizkaian ala Gipuzkoan), zein foru ogasunetan ordainduko duen zerga.

- **Azken egoitzaren irizpidea:** zerga honetan aitortutako azken egoitza Gipuzkoan kokatuta dagoenean.

Lehen irizpidearen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan denean erabiliko da bigarren irizpidea. Lehen eta bigarren irizpideen arabera ohiko egoitza inolako lurraldetan (komuna edo foru lurraldea) zehaztea ezin izan denean erabiliko da hirugarren irizpidea

Atal honetan, **ohiko egoitzaren uestezko bi kasuak** finkatu dira, lotura ekonomikoan eta lotura familiarrean oinarrituta:

- **Lotura ekonomikoa:** hiru baldintza hauek betetzen direnean ulertuko da lurralde espainiarrean bizi diren zergadunek egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dutela:
  - Lurralde espainiarrean bizi izatea.
  - Urte naturalaren barruan 183 egun baino gehiagotan lurralde espainiarretik kanpo egotea.
  - Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta egotea haien jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoen gune nagusia.

Era berean, haien jarduera enpresarial edo profesionalen edo interes ekonomikoen gune nagusia Gipuzkoan kokatuta dagoenean ulertuko da pertsona fisiko horiek lurralde horretan bizi direla.

- **Lotura familiarra:** behin pertsona fisiko bat lurralde espainiarrean bizi dela uste ondoren, Gipuzkoan lege bereizi gabeko ezkontidea eta haren menpeko adingabeko seme-alabak bizi direnean izango du ohiko egoitza lurralde horretan, baldin eta pertsona horrek aurkakoa frogatzen ez badu.

### 1.3 Zer ondare aitortu behar da?

**Ondare hau aitortu behar du zergadunak:**

- Bere titularitateko ondasun guztiak.
- Sortzapen egunean, hau da, 2012ko abenduaren 31n, berari egotzitako eduki ekonomikoko eskubide guztiak.

## 1.4 Zer ondare ez da aitortu behar?

Zergadunak ez ditu ondoko ondasun eta eskubideak aitortu behar:

- **Euskal Ondare Kulturala** osatzen duten ondasunak, behar bezala inskribatuak daudenean.
- **Autonomia Erkidegoen Ondare Historikoa** osatzen duten ondasunak, erregistratuak eta kalifikatuak daudenean, eta **Espainiako Ondare Historikoa** osatzen dutenak.
- Museo edo kultur erakundeei gordailuan lagatako arte-gaiak eta zaharkinak, haietan gordailatzen diren bitartean. Baldintzak:
  - Irabazteko asmorik ez izatea.
  - Lagapenaldia hiru urtetik beherakoa ez izatea.
- **Artistaren artelana bera**, egilearen ondarean jarraitzen duen bitartean.
- **Etxeko ostilamendua**, ondoko hauek izan ezik: bixiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak, aireontziak, arte-gaiak eta zaharkinak.
- Eduki ekonomikoko eskubideak, aurrezpen tresna hauetan:
  - a) Bazkide osoen edo arrunten eskubide kontsolidatuak eta onuradunen eskubide ekonomikoak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitate batean.
  - b) Partaideen **eskubide kontsolidatuak** eta onuradunen eskubide ekonomikoak, **pentsio plan batean**.
  - c) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen **aurreikuspen plan aseguratuei** ordaindutako primei dagozkien **eduki ekonomikoko eskubideak**.
  - d) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak aipatzen dituen **enpresen gizarte aurreikuspeneko planei** subjektu pasiboak egindako ekarpenei dagozkien **eduki ekonomikoko eskubideak**, hartzailerearen kontribuzioak barne.
  - e) Enpresen gizarte aurreikuspeneko planekin zer ikusirik ez duten **eduki ekonomikoko eskubideak**, baldin eta enpresek pensio gaietan hartutako konpromisoak bideratzen dituzten **aseguru kolektiboko kontratuei** subjektu pasiboak ordaindutako primetatik badatoz, Pentsio Plan eta Fondoei buruzko Legearen Testu Bateratuaren lehen xedapen gehigarriaren eta horren garapenerako araudian jasotako eran. Era berean, enpresarietako aseguru kolektiboko kontratu horiei ordaindutako primetatik datozen eduki ekonomikoko eskubideak ere bai.
  - f) Mendetasun aseguru pribatuei ordaindutako primei dagozkien eduki ekonomikoko eskubideak.
- **Jabetza intelektualetik** eratorritako eskubideak, egilearen ondarean jarraitzen duten bitartean.
- **Jabetza industrialetik** eratorritako eskubideak, enpresa jarduerari loturik ez dauden bitartean.
- Salbuetsita dauden etekinak sortzen dituzten baloreak<sup>1</sup>.
- Pertsona fisikoek beren **jarduera enpresarial edo profesionala** aurrera eramateko beharrezkoak dituzten ondasun eta eskubideak, baldin eta jarduera horretan subjektu pasiboa pertsonalki eta zuzenean aritzen bada eta hura badu errenta iturri nagusia. Era berean, bi

ezkontideenak edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eraturako izateko bikoteko bi kideenak diren ondasun eta eskubideak salbuetsita daude lehen aipaturako baldintzak betetzen dituztenean.

- Era berean, entitateetako partaidetzak ez dira aitortu behar, Zergaren foru arauan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.
- Zergadunaren **ohiko etxebizitza**<sup>2</sup>, gehienez 300.000,00 euroaraino.
- Ondasun higiezin hiritarrak, ohiko etxebizitza ez direnean, 61.302,00 euroaraino.

## 1.5 Zein da ondarearen titularra?

Ondare ondasun eta eskubideen titularra zein den zehazteko, titularitate juridikoari buruz kasu bakoitzean aplikaziozkoak diren arauak hartuko dira kontuan, beti ere zergadunek aurkeztu edo Administrazioak aurkitutako frogak aintzat harturik. Titularitate juridikoari dagokionez honako arauak aplikatuko dira: ezkontzaren erregimen ekonomikoa arautzen duten xedapenetan jasotakoak, eta familiako kideen artean edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera osaturako izateko bikoteko kideen artean ondare harremanei kasu bakoitzean aplikagarri zaien legeria zibilean jasotakoak.

Gertatzen bada ezkontzako erregimen ekonomikoa edo ondare erregimena arautzen duten xedapenen arabera ondasun edo eskubide bat bi ezkontideena edo izateko bikoteko bi kideena dela, balioa erdibana egotziko zaie, beste partaidetza kuota bat frogatzen ez den bitartean.

Ondasun edo eskubideen titularitatea behar bezala frogatzen ez bada, Zerga Administrazioak erregistro fiskal batean edo izaera publikoko beste batean titular gisa azaltzen dena hartu ahal izango du titulartzat.

Kargak, zorrak eta betebeharrak aurreko arau eta irizpideei jarraiki egotziko zaizkie zergaduneei.

## 1.6 Nola aitortzen da ondarearen aitortpena?

**Banaka** aurkezten da Ondarearen gaineko Zergaren aitortpena.

Familia unitate bateko kide izan arren, zergadun bakoitzak aitortpena aurkeztu behar du ondarea bertan individualizatuz 714 inprimaki ereduari, eta berea den aitortpena besterik ez du aurkeztuko.

## 1.7 Noiz eta non aurkezten da aitortpena? Nola ordaintzen da?

Aitortpena aurkezteko epea 2013ko apirilaren 16an hasi eta urte bereko ekainaren 25ean amaituko da, biak barne.

Modalitate hau erabil daiteke zerga honen aitortpena aurkezteko:

- Telematikoa (internet).

**ERNE:** zergadunak modalitate honen bidez bakarrik aurkeztu dezake aitortpena.

### 1.7.1 Internet bidezko modalitatea

Modalitate honen erabiltzaileak izan daitezke:

- Zergadunak: partikularrak eta enpresariak zein profesional autonomoak
- Ordezkeri profesionalak: aholkulari eta kudeatzaileak

<sup>1</sup> Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergak 13. artikuluan jasotakoaren arabera salbuetsitako baloreak.

<sup>2</sup> Ohiko etxebizitza Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan halakotzat hartutakoa izango da.

## Prozedura

Hona hemen urteko errenta aitortpena internet bidez aurkezteko urratsak:

### 1) Datuak betetzea:

ZERGABIDEA laguntza programa erabili behar da. Gure webgunean bakarrik eskura daiteke. Zergadunek eta ordezkari profesionalak programa berdina dute.

### 2) Transmititzea:

- Zergadunak: pasahitz operatiboa zein sinadura elektronikoa erabiliz. Ezin da bidali kontraste datuarekin.
- Ordezkari profesionalak: sinadura elektronikoa erabiliz.

### 3) Frogagiriak aurkeztea (zergadunak edo ordezkari profesionalak):

Berrikuntza gisa, 2012ko ondare aitortpena egiteko ez da frogagiririk aurkeztu behar. Aurkezpena amaitzen da aitortpena Internet bidez bidaltzen denean.

## Autolikidazioaren emaitza

### Ordaintzekoa

Ordaintzeko emaitza 2013ko uztailaren 1ean kargatuko da zergadunaren kontu korronteana.

## 2. Nola kalkulatu da oinarri ezargarria?

Zergadunaren ondare garbiaren balioa izango da Ondarearen gaineko Zergaren oinarri ezargarria.

### Ondare garbia bi hauen arteko aldeak emango du:

- Zergadunarenak diren ondasun eta eskubideen balioa.
- Ondasun izaerako kargak, ondasun eta eskubideen balioa gutxitzen badute, eta zergadunak bere gain hartu behar dituen zorrak.

**ERNE:** ondare garbia zehazterakoan, salbuetsitako ondasunen kargak ez dira kenkaridunak izango.

### LABURPENA

Ondasun eta eskubideen balioa

- Karga eta grabamen errealak, eta zorrak eta betebeharrak pertsonalak

Ondare garbia

## 3. Nola baloratzen dira ondare ondasunak, eskubideak eta zorrak?

Aurretik ikusi den bezala, ondoko hauek baloratu behar dira zergaren oinarri ezargarria kalkulatzeko:

- Zergadunaren titularitateko ondare ondasun eta eskubideak.
- Zergari lotutako ondasun edo eskubideen balioa murrizten duten karga errealak.
- Zergadunaren erantzukizunari lotutako zor eta betebeharrak pertsonalak.

Azter ditzagun kontzeptu horiek guztiak.

## 3.1 Ondasun higiezinak

### 3.1.1 Ondasun higiezin hiritar edo landatarrak

Hiru balio hauetan handiena kontuan hartuta konputatuko da ondare balio gisa:

- Balio katastrala.
- Beste tributuen ondorioetarako Administrazioak egiaztatutako balioa.
- Prezioa, kontraprestazioa edo eskurapen balioa.

### 3.1.2 Eraikitzen ari diren ondasun higiezinak

Ondare baliotzat eraikuntza horretan 2012ko abenduaren 31ra arte zergadunak inbertitu dituen zenbatekoak eta orubearen ondare balioa hartuko dira.

Jabetza horizontala egonez gero, orubearen balioan duen zati proportzionala tituluan finkaturiko portzentajearen arabera zehaztuko da.

### 3.1.3 Jabetza anitzeko kontratuen edo antzekoen indarrez eskuratutako ondasun higiezinaren gaineko eskubideak

- Berekin ondasun higiezinaren titularitate partziala bada-karte, 3.1.1. puntuko arauari jarraiki baloratuko dira.
- Berekin ez bada-karte ondasun higiezinaren titularitate partzialik, egiaztagirien edo bestelako titulu ordezkagarien eskurapen prezioaren arabera baloratuko dira. Modu berean baloratuko dira abenduaren 15eko 42/1998 Legeak, erabilera turistikoko ondasun higiezinak txandaka aprobetxatzeko eskubideei eta zerga arauari buruzkoak, jasotako eskubideak, haien izaera edozein delarik ere.

**OHARRA:** 1985eko maiatzaren 9a baino lehenagoko kontratuen indarrez errentan emandako ondasun higiezinak. Sortutako errentaren %4 kapitalizatuz baloratuko dira, betiere horrela kalkulatu balioa ondasun higiezinak baloratzeke erregelak aplikatuta ateratzen dena baino txikiagoa bada.

## 3.2 Jarduera enpresarialak eta profesionalak

Bi kasu bereizten dira:

- Merkataritza Kodeari egokituriko kontabilitatea eramaten denean:

Pertsona fisikoaren ondasun eta eskubideak, enpresa edo lanbide jarduerari loturik badaude, beren kontabilitatek ateratzen den balioaren arabera konputatuko dira, ondasunen aktiboaren eta pasibo exijigarriaren arteko aldearen arabera alegia.

Jarduera ekonomikoari loturiko ondasun higiezinak badaude, bereizita baloratuko dira eta (3.1. puntuko arauen arabera), non eta aktibo zirkulatzailearen zatia ez diren eta jarduera enpresarialen helburu bakarra ondasun higiezinak eraikitzea edo sustatzea ez den.

- Merkataritza Kodeari egokituriko kontabilitatea eramaten ez denean:

Honela gertatzen denean, Ondarearen gaineko Zergaren gainerako arauak erabiliko dira ondasun eta eskubideak baloratzeke.

### 3.3 Kontu korrante edo aurrezki kontuen gordailuak, agerian edo epeka

Balio hauetan **handiena** kontuan hartuz konputatuko dira:

- 2012ko abenduaren 31n duten saldoa.
- 2012ko laugarren hiruhilekoan duten batez besteko saldoa. Kalkulu hori egiteko, ondarean dauden ondasun eta eskubideak eskuratzeko edo zorrak kitatu nahiz murrizteko ateratako fondoak konputatu gabe utziko dira.

### 3.4 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak

2012ko laugarren hiruhilekoan izan duten batez besteko negoziatio balioaren arabera konputatuko dira.

### 3.5 Kapital propioak hirugarrenei laga izana adierazten duten gainerako baloreak

Merkatu antolatuetan negoziatzen ez diren balore hauek beren nominalaren arabera konputatuko dira, amortizazio edo itzulketak primak barne hartuz, hala badagokio.

### 3.6 Edozein motatako entitateen fondo propioetan parte hartzea adierazten duten baloreak, merkatu antolatuetan negoziatuak

2012ko laugarren hiruhileko batez besteko negoziatio balioaren arabera konputatuko dira.

Apartatu honetatik kanpo geratuko dira inbertsio kolektiboko erakundeen akzioak eta partaidetzak.

### 3.7 Edozein motatako entitateen fondoetan parte hartzea adierazten duten gainerako baloreak

Balore hauek, merkatu antolatuetan negoziatzen ez direnez, honela konputatuko dira:

- Entitatearen azken balantzea gainbegiratu eta egiaztatu bada eta auditoretzaren txostena aldekoa bada, balore hauek balantze horretatik ateratzen den balio teorikoaren arabera konputatuko dira.
- Auditoretzarik egin ez bada edo auditoretzaren txostena aldekoa ez bada, ondoko balio hauetan **handiena** kontuan hartuko da:
  - Balio nominala.
  - Onartutako azken balantzearen balio teorikoa.
  - 2012ko abenduaren 31 baino lehen itxitako hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa %20an kapitalizatuz ateratzen den balioa.

**ERNE:** Baloreak ondare sozietateenak edo ondare higigarri edo higiezin bat kudeatzea jardura nagusizat duten entitateenak direnean, aurreko apartatuetan aipatu den balio teorikoa kalkulatu da aktiboen kontabilitate balio garbiaren ordez zerga honen ondorioetarako izango luketen balioa jarrita.

Inbertsio kolektiboko erakundeen kapital sozialeko edo ondare fondoko akzio eta partaidetzak 2012ko abenduaren 31ko likidazio balioaren arabera konputatuko dira. Balantzean sartutako

aktiboak berariazko legerian jasotako arauak jarraiki baloratuko dira, eta hirugarrenetik betebeharrak kenkaridunak izango dira.

Kooperatiben kapital sozialean bazkide edo elkartekideek dituzten partaidetzak derrigorrezko edo borondatezko ekarpenen zenbateko osoaren arabera baloratuko dira. Aipatu zenbateko osoa onartutako azken balantzetik aterako da, hala dagokionean itzuli gabeko galera sozialak kenduz.

Horretarako, entitateek ziurtagiriak banatu beharko dizkiete bazkide, elkartekide edo partaideei, balorazioak bertan azalduz.

### 3.8 Bizitza aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak

Bizitza aseguruak 2012ko abenduaren 31n duten erreskate balioaren arabera konputatuko dira.

Kapital bat dirutan edo ondasun higikor nahiz higiezinetan ematearen ondorioz eratzen diren aldi baterako edo biziarteko errentak 2012ko abenduaren 31n duten kapitalizazio balioaren arabera konputatuko dira. Horretarako, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan pentsioak eratzeko ezarritako dauden arau berberak aplikatuko dira.

### 3.9 Bitxiak, luxuzko larruak, ibilgailuak, urontziak eta aireontziak

2012ko abenduaren 31ko merkatuko balioaren arabera konputatuko dira.

Merkatuko balio hori zehazteko, ibilgailu erabilien balorazio taulak<sup>3</sup> erabili ahal izango dituzte zergadunek.

### 3.10 Arte-gaiak eta zaharkinak

2012ko abenduaren 31ko merkatuko balioaren arabera konputatuko dira.

### 3.11 Eskubide errealak

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan emandako irizpideei jarraiki baloratuko dira gozameneko eta jabetza soileko eskubide errealak.

### 3.12 Administrazio emakidak

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan emandako irizpideei jarraiki baloratuko dira.

### 3.13 Jabetza intelektual eta industrialetik eratorritako eskubideak

Zergadunak hirugarrenengandik eskuratu dituzten, beren eskurapen balioaren arabera konputatuko dira.

### 3.14 Kontratuzko aukerak

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritakoari jarraiki baloratuko dira.

<sup>3</sup> Ikus 2012ko ekitaldirako balorazio taulak. Horretarako, ikus urtarrilaren 12ko 19/2012 Foru Agindua, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga Berezia kudeatzean aplikagarri diren ibilgailu eta itsasontzi erabilien batez besteko salmenta prezioak onartzen dituenak.



### 3.15 Eduki ekonomikoa duten gainerako ondasun eta eskubideak

Aurreko ataletan jaso ez diren ondasun eta eskubideak 2012ko abenduaren 31n merkatuan duten prezioaren arabera baloratuko dira.

### 3.16 Zorrak

2012ko abenduaren 31n duten balio nominalaren arabera baloratuko dira zorrak. Zergadunak bere gain hartu behar dituenek baino ez dute kenkarirako eskubiderik emango, **behar bezala justifikatuta** badaude beti ere.

Zenbateko abalatuak ez dira kenkaridunak izango, harik eta, zordun nagusiaren aurkako eskubidea erabili ondoren, honek ordaindu ez eta abal emalea zorra ordaintzera behartuta egon arte. Betebehar solidarioaren kasuan, kopuru abalatuaren kenkaria ezin izango da egin abalisten aurkako eskubidea gauzatu arte.

Ondasun bat erostean geroratzen den prezioa bermatzeko hipoteka ere ez da kenkariduna izango. Kenkaria egin ahal izango da, halere, prezio geroratuagatik edo zor bermatuagatik.

Inoiz ere ezin izango da kenkaririk egin ondasun edo eskubide salbuesiak erosteko hartutako zorretan. Zati bateko salbuespena egiten denean, zorren zati proportzionala izango da kenkariduna, hala dagokionean.

### 4. Nola kalkulatu da oinarri likidagarria?

Oinarri likidagarria kalkulatzeko, oinarri ezargarriari **700.000,00** euro kendu behar zaizkio minimo salbuesiaren kontzeptuan.

$$\text{Oinarri ezargarria} - 700.000,00 \text{ euro} = \text{Oinarri likidagarria}$$

Dena den, zerga ordaintzeko obligazio erreala duten subjektu pasiboan kasuan, minimo salbuesia aplikatuko zaie betiere frogatzen badute beren ondare osoa 700.000 eurotik beherakoa dela, eta haien egoitza ez badago paradisu fiskaltzat hartutako herrialdeetan edo informazioa trukatzeko akordioak sinatu gabekoetan.

### 5. Nola kalkulatu da kuota osoa?

Kuota osoa kalkulatzeko, ondoko eskala aplikatu behar zaio oinarri likidagarriari:

| Oinarri likidagarria muga eurotan | Kuota osoa | Oinarri likidagarriaren gainerako muga eurotan | Tasa (%) |
|-----------------------------------|------------|--|----------|
| 0,00                              | 0,00       | 200.000,00                                     | 0,20     |
| 200.000,00                        | 400,00     | 200.000,00                                     | 0,30     |
| 400.000,00                        | 1.000,00   | 400.000,00                                     | 0,50     |
| 800.000,00                        | 3.000,00   | 800.000,00                                     | 0,90     |
| 1.600.000,00                      | 10.200,00  | 1.600.000,00                                   | 1,30     |
| 3.200.000,00                      | 31.000,00  | 3.200.000,00                                   | 1,70     |
| 6.400.000,00                      | 85.400,00  | 6.400.000,00                                   | 2,10     |
| 12.800.000,00                     | 219.800,00 | aurrera  | 2,50     |

### Adibidea

Kalkulatu dezagun 420.708,47 euroko oinarri likidagarri bati dagokion kuota osoa.

| Oinarri likidagarria         | Kuota osoa |
|------------------------------|------------|
| 400.000,00 €-raino           | 1.000,00 € |
| Gainerakoa (20.708,47 x %50) | 103,54 €   |
| Guztira                      | 1.103,54 € |

### 5.1 Kuota osoaren muga

Zerga hau obligazio pertsonalagatik<sup>4</sup> ordaindu behar duten zergadunentzat honako muga ezarri da: Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoak gehi Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoak ezin dute azken zerga horren oinarri ezargarri orokorraren eta aurrezpenarenaren **%60** gainditu.

Horretarako:

- Ondare irabazi edo galeretatik datorren aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zatia ez da kontuan hartuko, baldin eta zati hori badagokio eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi edo galeren saldo positiboari. Era berean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren zatia ere kontuan hartu gabe utziko da aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zati horri dagokionean.
- Beren izaera edo helburua dela-eta ondare elementuak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauak zergapetzen dituen etekinak sortzeko gai ez direnean, Ondarearen gaineko Zergan dagokien zatia ez da kontuan hartuko.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren oinarri ezargarriari dibidenduen eta mozkin-partaidetzen zenbatekoa batuko zaio, baldin eta horiek sortu diren zergaldietan entitate banatzaileak garrantasun fiskalaren erregimenean tributatu badu.
- Bi kuoten baturak aurreko muga gainditzen badu, Ondarearen gaineko Zergaren kuota aipatu mugaraino murriztuko da. **Murrizpen hori ez da %80koa baino handiagoa izango.**

Familia unitate bateko kideek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan baterako aitortpena egitea aukeratu dutenean, zerga honen kuota osoak eta Ondarearen gaineko Zergarenak batera duten muga zein den kalkulatzeko, familia unitateko kideek azken zerga honetan sortutako kuota osoak metatuko dira. Murrizpena egin behar bada, beraz zergadunen artean hainbanatuko da hauek bakoitzak Ondarearen gaineko Zergan duen kuota osoaren arabera.

#### 5.1.1 Soberakinaren kalkulua

Soberakinaren kalkulua Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenean egindako tributazio motaren arabera aldatuko da: zergadunak banakako aitortpena edo baterakoa aurkeztu badu.

<sup>4</sup> Ikus 1.1 apartatua, ondarea aitortzeko obligazioari buruzkoa.

### 5.1.1.1 Errenta Zergaren banakako aitortpena

2012ko Errenta Zergaren aitortpena banaka egin duten familia unitateko kideek nahiz familia unitate batean sartuta ez dauden zergadunek jarraituko diote prozedura honi.

#### Adibidea

Demagun honako partida fiskal hauek dituzula:

|   |                |
|---|----------------|
| Errenta Zergaren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenaren <sup>(1)</sup> (EO) | 300.506,05 €   |
| Errenta Zergaren kuota osoa <sup>(2)</sup> (EK)                                   | 126.991,32 €   |
| Ondare Zergaren oinarri likidagarria  | 7.212.145,25 € |
| Ondare Zergaren kuota osoa  | 102.455,05 €   |

<sup>(1)</sup> Ondare irabazi edo galeretatik datorren aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zatia kanpoan geratzen da, baldin eta zati hori badagokio eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi edo galeren saldo positiboari.

<sup>(2)</sup> Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren zatia, irabazi edo galeretatik datorren aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zatiari dagokiona, kanpoan geratzen da baldin eta eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi edo galeren saldo positiboari badagokio.

Ondarearen gaineko Zergaren aitortpenean 463.695,14 euroko balioa duten ondasun eta eskubideak sartu dira, baina Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergak zergapetzen duen etekinik sortzen ez dutenez, ez dira soberakina kalkulatzeko kontuan hartzen.

#### Batez besteko karga tasa

$$(102.455,05 \text{ €} / 7.212.145,25 \text{ €}) \times 100 = \%1,42$$

#### Ondare Zergaren oinarri likidagarria

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan etekinik sortzen ez duten elementuak kanpoan uzten dira.

$$7.212.145,25 \text{ €} - 463.695,14 \text{ €} = 6.748.450,11 \text{ €}$$

#### Ondare Zergaren kuota osoa, mugatu daitekeena (OK)

$$6.748.450,11 \text{ €-ren } \%1,42 = 95.827,99 \text{ €}$$

|              |               |                 |              |
|--------------|---------------|-----------------|--------------|
| <b>EK</b>    | <b>+ OK</b>   | <b>&gt; 0,6</b> | <b>x EO</b>  |
| 126.991,32 € | + 95.827,99 € | > 0,6 X         | 300.506,05 € |
|              | 222.819,31 €  | > 180.303,63 €  |              |

Ondare Zergaren kuota osotik kenduko den soberakina:

$$222.819,31 \text{ €} - 180.303,63 \text{ €} = 42.515,68 \text{ €}$$

Beraz, kopuru hau ordainduko da Ondare Zerga dela eta:

$$102.455,05 \text{ €} - 42.515,68 \text{ €} = 59.939,37 \text{ €}$$

### 5.1.1.2 Errentaren baterako aitortpena

A eta B ezkontideek osatutako familia unitateak batera tributuetza erabaki duenean, soberakinaren formula ondoko hau izango da:

|  |   |   |                 |   |
|--|---|---|-----------------|---|
| <b>EK</b>  | <b>+ AOK</b>  | <b>+ BOK</b>  | <b>&gt; 0,6</b> | <b>x EO</b>   |
| Errenta zergaren kuota osoa, batera <sup>(2)</sup> | A ezkontidearen Ondare Zergaren kuota osoa, mugatu daitekeena | B ezkontidearen Ondare Zergaren kuota osoa, mugatu daitekeena |                 | Errenta Zergaren oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpena, batera <sup>(1)</sup> |

<sup>(1)</sup> Ondare irabazi edo galeretatik datorren aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zatia kanpoan geratzen da, baldin eta zati hori badagokio eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi edo galeren saldo positiboari.

<sup>(2)</sup> Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoaren zatia, irabazi edo galeretatik datorren aurrezpenaren oinarri ezargarriaren zatiari dagokiona, kanpoan geratzen da baldin eta eskualdatu baino gutxienez urtebete lehenago eskuratu edo hobetu diren ondare elementuak eskualdatzeagatik lortutako ondare irabazi edo galeren saldo positiboari badagokio.

Soberakinik egonez gero, bi ezkontideen artean hainbanatuko da hori, bakoitzaren OZren kuota osoen arabera, formula hauei jarraiki:

$$A \text{ SOBERAKINA} = \text{SOBERAKINA} \times \text{AK} / (\text{AK} + \text{BK})$$

$$B \text{ SOBERAKINA} = \text{SOBERAKINA} \times \text{BK} / (\text{AK} + \text{BK})$$

AK = A ezkontideak Ondare Zergaren duen kuota osoa

BK = B ezkontideak Ondare Zergaren duen kuota osoa

## 6. Kenkaria atzerrian ordaindutako zergengatik

Zergak ordaintzeko betebeharrak pertsonala dagoenean, zergaren kuotatik ondorengo bi zenbaterako artean **txikiena** kenduko da, ondasunak lurralde espainiarretik kanpo egoteagatik edo eskubideak handik kanpo erabiltzeagatik:

- Zergan konputatutako ondare elementuen gainean karga pertsonal modura atzerrian benetan ordaindu den zenbatekoa.
- Zergaren batez besteko tasa efektiboa atzerrian zergapetutako oinarri likidagarriaren zatiari aplikatuz atera den emaitza.

$$\text{Batez besteko karga tasa} = \frac{\text{Kuota osoa}}{\text{Oinarri likidagarria}} \times 100$$

## Adibidea

300.506,05 euroko oinarri likidagarria duen zergadun batek zergaren arauari jarraiki 120.202,42 eurotan baloratutako ondasun higiezin bat dauka atzerrian. Herri horretan, 240,40 euro ordaindu ditu, Ondarearen gaineko Zergaren pareko zerga batengatik.

Bere aitortzearen zenbateko hauetatik txikiena kenduko du:

- Atzerrian ordaindutako zenbatekoa: 240,40 euro
- Etxebizitzaren balorazioa, batez besteko karga tasaren arabera.

Batez Lehendabizi, batez besteko tasa efektiboa kalkulatu besteko dugu:

tasa Oinarri likidagarria: 300.506,05 €.

efektiboa Kuota osoa: 701,52 €

$$= \frac{\text{Kuota osoa}}{\text{Oinarri likidagarria}} \times 100 = \frac{701,52}{300.506,05} \times 100 = \%0,23$$

Etxebizitzaren balorazioa, batez besteko tasa efektiboaren arabera: 120.202,42 €-ren  $\%0,23 = 276,46$  €.

Atzerrian ordaindutako zergengatik egin beharreko kenkaria a) eta b)ren artean txikiena izango da: 240,40 €.

## 7. Kuotaren hobaria Ceuta eta Melillan

Oinarri ezargarrian konputatu diren ondasun eta eskubideen artean Ceuta eta Melillan nahiz haien dependentzietan helbideratuta dauden eta xede soziala bertan duten entitate juridikoen kapital sozialaren ondasun eta eskubide adierazgarriak direnean, edo leku horietan kokaturiko establezimendu iraunkorrei dagozkienean,  $\%75$ eko hobaria izango dute ondasun eta eskubide horiei proportzionalki dagokien kuotaren zatian.

## Adibidea

Demagun zergaduna 1960ko abuztuaren 24an jaio zela. Donostian bizi da, ezkongabe dago, eta datu hauek aurkeztu ditu Ondarearen gaineko Zerga aitortzeko:

Errenta Zergaren aitortzearen:

|                            | 2012        |
|----------------------------|-------------|
| Oinarri ezargarri orokorra | 30.050,61 € |
| Kuota orokor osoa          | 7.694,31 €  |

Gainera, ondare hau dauka:

Pisu bat Donostian, bere ohiko etxebizitza dena. 108.182,18 eurotan erosi zuen. Balio katastrala 140.802,42 eurokoa da.

Malagan kokaturik dagoen apartamentu baten herenaren titularra da. Higiezinagatik ordaindutako prezio osoa 36.060,73 eurokoa izan zen. Administrazioak egiaztatutako balioa, berriz, 180.303,63 eurokoa da.

Madriken kokatuta dagoen ondasun higiezin baten titularra da. 103.328,23 euroko prezioa ordaindu zuen. Bakio katastrala 96.161,94 eurokoa da.

Jarduera enpresarial baten titularra da, eta bertako kontabilitatea eraman du Merkataritza Kodearen arabera. Salbuespena aplikatzeko baldintzak ez ditu betetzen. Abenduaren 31ko balantzearen ondorengo hau izan da:

| AKTIBOA           |                   | PASIBOA          |                   |
|-------------------|-------------------|------------------|-------------------|
| Kutxa eta bankuak | 12.020,24         | Hornitzaileak    | 12.020,24         |
| Izakinak          | 18.030,36         | Maileguak        | 24.040,48         |
| Bezeroak          | 12.020,24         | Kapitala         | 60.101,21         |
| Eraikinak         | 54.091,09         | Erreserbak       | 30.050,61         |
| Makineria         | 36.060,73         | Galera-irabaziak | 18.030,36         |
| Ibilgailuak       | 12.020,24         |                  |                   |
| <b>GUZTIRA</b>    | <b>144.242,90</b> | <b>GUZTIRA</b>   | <b>144.242,90</b> |

Balantzearen barruan, jarduera enpresarialari atxikitako ondasun higiezin bat sartuta dago, balio hauek dituen:

|                                       |           |
|---------------------------------------|-----------|
| Balio katastrala                      | 66.111,33 |
| Balio egiaztatua                      | 66.111,33 |
| Eskurapen balioa                      | 72.121,45 |
| Kontabilitate balioa aktibo errealean | 54.091,09 |

Diru-etxe batean honako hauek ditu:

0136527 zk.dun kontu korrantea, datu hauek dituen:

Abenduaren 31ko saldoa: 3.005,06 euro.

Batez besteko saldoa urteko azken hiruhilekoan: 3.155,31 euro.

Epe finkorako gordailua, datu hauek dituen:

Abenduaren 31ko saldoa: 60.101,21 euro.

Batez besteko saldoa urteko azken hiruhilekoan: 55.593,62 euro.

1.000 akzio ditu burtsan kotizatzen duen X sozietatean. Urteko azken hiruhilekoan titulu horien batez besteko kotizazioa 30.050,00 eurokoa izan zen.

Ekitaldiaren barruan DIRUFONDO FIAMM inbertsio fondoaren 10 partaidetza erosi zituen. Abenduaren 31n partaidetza bakoitzaren likidazio balioa 4.808,10 eurokoa izan zen.

Beta SA sozietatean 50 akzio ditu. Sozietate horrek ez du burtsan kotizatzen eta bere azken balantzeari ez zaio auditoretzarik egin. Balio unitarioak ondorengo hauek dira:

Balio nominala. 0,60 euro.

Onartutako azken balantzearen balio teorikoa: 0,66 euro.

Azken hiru ekitaldi sozialetako mozkinen batez bestekoa  $\%20$ an kapitalizatuz izandako balioa hau da: 0,63 euro/akzioko.

ALFA entitatearekin bizitza aseguru bat egina du. Polizaren zenbakia 999.999 da, eta abenduaren 31n 120.202,42 euroko erreskate balioa du.

Hainbat arte-gai dauzka, abenduaren 31n 300.506,05 euroko merkatuko prezioa dutenak.

Banco de Santander diru-etxeari eskatutako mailegua dela-eta, abenduaren 31n 18.030,36 euroko zorra duela frogatu du.

Ondarearen gaineko Zerga

| <b>LIKIDAZIOA</b>   | <b>2012</b>  |
|---|--------------|
| Ondasun higiezinak  | 103.328,23 € |
| Ohiko etxebizitza Donostian   | Salbuetsia   |
| Beste ondasun higiezin hiritar batzuk:<br>Madrilgo pisua: 103.328,23€   | 103.328,23 € |
| Jarduera ekonomikoa kontabilitatearen arabera   | 126.212,54 € |
| Aktibo erreala: 144.242,90 €  | 144.242,90 € |
| Pasibo exijigaria: 36.060,72 €  | -36.060,72 € |
| Diferentzia higiezin balarazioan: 18.030,3€   | +18.030,36 € |
| Gordailua 0136527 zki.ko kontu korrontean   | 3.155,31 €   |
| Eperako gordailua   | 60.101,21 €  |
| Baloreak burtsan kotizatzen duten entitateen fondoetan parte hartzeagatik:<br>1000 akzio X 30,05 € = 30.050,00 €  | 30.050,00 €  |
| Gainerako baloreak burtsan kotizatzen ez duen edozein entitateen fondoetan parte hartzeagatik:<br>50 akzio X 0,66 € = 33 €<br>10 partaidetza X 4.808,10 € = 48.081,00 € | 48.114,00 €  |
| Bizitza aseguruak   | 120.202,42 € |
| Arte-gaiak  | 300.506,05 € |
| ONDASUN ETA ESKUBIDEEN BALIOA,<br>GUZTIRA   | 791.669,76 € |
| Zorrak  | 18.030,36 €  |
| OINARRI EZARGARRIA  | 773.639,40 € |
| MURRIZPENA  | 700.000,00 € |
| OINARRI LIKIDAGARRIA  | 73.639,40 €  |
| KUOTA OSOA  | 147,28 €     |